SUBJUNTIBOA NOR-NORK (Pertsona guztiak)

- **NOR-NORK INDIKATIBO FORMA HARTU:** naute, zaitu, gaituzu, zaituztegu, dituzu...
  ninduten, zintuen, gintuzun, zintuztegun, zenituen...
- **IDENTIFIKATU NOR-NORK ERROA: -U-** naute, zaitu, gaituzu, zaituztegu, dituzu...
  ninduten, zintuen, gintuzun, zintuztegun, zenituen...
- **ALDATU ERROA: -U- →→→ -ZA-:** naZAteN, zaitZAN, gaitZAzuN, zaitZAteguN, ditZAzuN...
- **SUBJUNTIBOKO EZAUGARRIA: -N** ninTZAten, zintZAN, gintZAzuN, zintZAteguN, zenitZAN...

Iraganean/Lehenaldian

Isil-isilik sartu ginen auzokoek entzun ez _____ .

Gu babes _____ eraman genuen txakurra mendira..

Nire gurasoek ezagutu _____ gonbidatu zintudan etxera.

Guk zu onar _____ etorri zinen honaino?

Aitak ni kotxez eraman _____ hainbat aldiz esan behar izan nion.

Haiek gu afaltzera gonbida _____ etorri ginen.

Felipek gu autoz ekar _____ telefonoz deika ibili ginen.

Ez nuen nahi zuk ni ekar _____ .

Medikuek zu arta _____ gerritik gora biluztu behar izan zenuen.

Margolari horrek zu margo _____ diru asko ordaindu genuen.

Gurasoek ni lanean ikus _____ nire gainean egon behar izaten ziren beti.

Ez nion gertatutako guztia kontatu, hark ni gorrota ez _____ .

Ikusleek gu txalo _____ espero genuen, baina ez zen horrela gertatu.

Betaurrekoak jantzi nituen, nik zu hobeto ikus _____ .

Zuk ni besarka _____ nahi zuten lagun guztiek.

LIVEWORKSHEETS